


8. FUNTSEZKO JARDUERAK



Gure negozio-eredua hiru jarduerak nagusitan antolatzen da: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataformak edo sareko jarduerak.

Honekin lortuko duguna da, gure bezeroei produktu jasagarriak, fidagarriak eta esperientzia koherentea eskaintzea.

Ekoizpena: gure helburua da zurezko bizikleta ekologiko motordunak kalitate onarekin egitea. Horretarako, tokiko egurra eta material jasagarriak erabiliko ditugu eta motor lagungarriak modu eraginkorrean jarriko ditugu. Horrela, gure bizikletak sendoak, iraunkorrak eta ingurumenarekiko errespetuzkoak izango direla bermatzen dugu.

Arazoak konpontzeko: gure barne-antolakuntza eta lan-diziplina funtsezkoak dira. Arau argiak eta kontrol sistemak zehatzak ezarriko ditugu fabrikazioan eta salmenta osteko zerbitzuan, edozein gorabehera azkar identifikatu eta bideratzeko.

Motorren mantentze-lanetan, egurraren tratamenduan edo bezeroen kexetan ager daitezkeen arazoak modu azkar eta profesionalean konpontzen ditugu.

Plataforma eta sareko jarduerak: gure gune digitalak eta sare sozialak erabiliko ditugu komunitatea sortzeko eta gure balio proposamena zabaltzeko. Webgunean produktu guztiak eskuragarri ditugu, eta egiten ditugun promozioak ere bertan argitaratzen ditugu.

Sare sozialetan, gure egurrezko bizikleten fabrikazioaren prozesu osoa, fasez-fase azalduko dugu, baita motor-teknologia nola integratzen den.

Ekintza desberdinak eskainiko ditugu, gure bezeroek enpresan parte hartze gehiago izateko, adibidez zozketak.